



BARREN
TOKIKOM



Futbola gidari

STOCK FERIA

URRIAK 5, LARUNBATA • 10:00ETATIK - 14:30ERA • MAIALAKO PARKEAN



salgai
2. fasea

etxegain
BIZI BUNEA

ARGITU ZURE IKUSPEGIA ETA
ETOR ZAITEZ **etxegain**-ERA

★
2 logelako
etxebizitzak
140.000 € -tik
hasita

elgoibar

WWW.ETXEGAIN.COM

Etxegain-en dena da altua,
prezioak izan ezik.



2 ETA 3 LOGELAKO 25 ETXEBIZITZA

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN
TERRAZAK

TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK
GARAJERA SARRERAREKIN

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

GE grupo eibar
inmobiliario

E: comercial@grupoeibar.com
San Frantzisko 32, behea - 20870 Elgoibar

943 31 66 11
689 66 08 01

OBRA FINANCIOADA POR
bankoa CAJ
Grupos
Credit Agricole

LAGUNAK
colchonaria textil hogar

Bisita gaitzazu!

**UDAZKEN ETA NEGUKO
OIHAL BILDUMA BERRIA**

- Neurrira egiten ditugu estore, gortina eta ohazalak.
- Oihaletan aukera zabala.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

**LED ONWA
40FHS18 TELEBISTA**



259 €

A+ / Smart tv
Full HD / 2HDMI
USB

**AEG L6FBG942Q
ARROPA GARBIGAILUA**



599 €

A+++ / 5kg-ko karga / 1400 r.p.m.
Wifi bitartez konektatzeko aukera
karga zenbatekoa den ezagutzen duen
ProSensen teknologia eta xaboi dosifikatzaileak ditu.

**COMBI SIEMENS KG36NXW3A
HOZKAILUA**



699 €

A++ / No Frost / 185 cm-ko altuera.
HyperFresh kaxola, hezetazuna kontrolatu eta
frutak eta barazkiak denbora luzez mantentzen ditu.
Temperaturaren kontrol elektronikoa: era garbi, single eta
zehatz batean kontrolatzen du hozkailuaren temperatura.

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendeko prezioak. Produktuak agortu arte.

EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Hartu-emanara

reak egin zituela, ez beretzat funtsezkoak zirelako, baizik eta horrela bizitza errazten zielako gurasoei. Gure indibidualtasunaren zatitxo bati amore ematen diogu batzutan kolektiboaren mesedetan.

Norbere izaera besteen begiradatik at ere sortu beharra dugu, geurea senti dezagun; hartu-emanaren dantza eza-gutu eta menderatzeak onura handiak ekarriko dizkigu testuinguru ezberdinetan, baina dantzan ari garen kontzientzia baldin badugu eta geure nortasuna jokoan jartzen ez baldin badugu testuinguru bakoitzean. Laneko testuinguruan laudoriorik ez jasotzeak geure balioa zalantzan jartzen badigu, biko-tekidearen begirada miresmenekoa ez denean hutsak sentitzen bagara, edo erlazioetan ematen dugun neurrian ja-

sotzen ez baldin badugu, zerbait gaizki egiten ari garela sentitzen baldin badugu, hartu-emanaren dantzaz dugun ezagutza berrikusi beharrean gaude.

Barne joera havei eransten badiegu kapitalismoa, erlazioetaraino sartu zai-guna, afektuak kontabilizatuz "gustuko"-ekin, ekonomiaren printzipioak geure bizitzan txertatuz arrakasta produktibitatearekin eta ikusgarritasunarekin lotuaz; eta patriarkatua, erlazio orotan boterearen ardatza finkatuaz, autoestimua besteek diguten obediencia mailarekin lotuaz eta sentiberatasuna eta eskuzabaltasuna ahultasun gisa ulertuz....

Hainbeste erritmo ezberdin batera jokoan, zaila da erritmoa eramatea oreka galdu gabe.

Lehen hartzaroan bizirauteko ikasi beharrekoa dugu hartu-emanaren dantza, zaintzaileak gustura edukitzeak onura handiak ematen baitizkigu; gogoz erantzungo diete gure beharrei, ematen dutenak buelta baduela nabari badute, eta oso baliotsuak sentituko gara gutaz espero duten hori ematen badiegu.

Orain gutxi entzun nuen emakume batek zioela gurasoen sinismenak bereak egin zituela eta zenbait arau be-

"Hartu-emanaren dantza ezagutu eta menderatzeak onurak ekarriko dizkigu, baina dantzan ari garen kontzientzia baldin badugu"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irtati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDAKO
2001

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► AKATSAK ZUZENTZEN

Joan zen astean argitaratu genuen erretratu zaharrean akats bat zegoen. 1958ko argazkia zen, Margarita Soraluzezen ezkontzan ateratakoa, baina Margarita bera ez zen erretratuan azaltzen. Rosario Totorika, Carmen Soraluze eta Mari Izagirre ziren argazkian agertzen ziren hiru emakumeak.

BARREN

► PEDRO MUGURUZA ETORBIDEAZ

Jakin dugunez, Elgoibarko Udalak herri galdeketa antolatu nahi du Pedro Muguruza kaleari izena aldatu edo ez erabakitzeko. Ez dugu uste hori denik *Memoria Historica* legeak dioena, goazen aztertzeraz legeak zer dioen: *“Las Administraciones públicas, en el ejercicio de sus competencias, tomarán las medidas oportunas para la retirada de escudos, insignias, placas y otros objetos o menciones conmemorativas de exaltación, personal o colectiva, de la sublevación militar, de la Guerra Civil y de la represión de la Dictadura. Entre estas medidas podrá in-*

cluirse la retirada de subvenciones o ayudas públicas.”

Nor zen Pedro Muguruza eta zergatik eskatzen dugu bere etorbidearen izena aldatzea?

- Pedro Muguruza, askok hala uste arren, ez zen Elgoibarren jaio. 1893ko maiatzaren 25ean jaio zen Madrilen.

- Erorien Haraneko arkitektoa izan zen Pedro Muguruza: [fbclid=IwAR3jQYP-yER66PDOxO8ny1SIL77x9crm1Dp8T2cawADa-NYY2PBMF3igyZKM" target="_blank" rel="nofollow noopen">https://youtu.be/4wwNSj2TBoY](https://youtu.be/4wwNSj2TBoY)

- Preso Politikoen eraiki zuten Erorien Harana.

- 1936an gerra leherturik, "Altamendu Nazionala bultzatu zuen eta Falangera afiliatu zen. Francorekin oso harreman ona zuen", dio Francoren fundazioaren webguneak hari buruz.

Pedro Muguruza bizkarrez ageri da, Francori esplikazioak emanez.

- Falangeak Arkitektura Zuzendaritza Nagusiko buru izendatu zuen Pedro Muguruza.


- Gobernuko aholkulari nazional izendatu zuten, eta 1943an, Espainiako Gorteetako prokuradore.

- Pedro Muguruza Elgoibarko seme adopziozkoa izendatu zuten 1943an, eta seme kutun, 1946ko abuztuaren 8an.

Memoria historikoaren legea betetzeko besterik ez dugu eskatzen, legea betetzea alegia. Frankista batek Elgoibarren kalea merezi duen ala ez erabaki behar dugu?

Faxistek plaka eta kaleak dituzten herri bat demokratikoa izan ahal da?

Elgoibar1936



II. URTEURRENA


Nizeto Garate Goiarzun

2017ko urriaren 10ean hil zen, 94 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, eguenean, urriaren 10ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Duela bi urte joan bazinen ere,
ez gaituzulako sekula utzi.
Eskerrik asko, aitona.
Askok maite zaitugu.***

Etxekoak



Herritarrek erabakiko dute Pedro Mugurutza etorbideari izena aldatu edo ez

Elgoibarko Udaltzatzen azken bilkuran Memoria Historikoari lotutako mozio bat adostu zuten Elkarrekin Podemos, EHBildu eta EAJ alderdiek, (PSEko ordezkaria ez zen batzarrean egon), herrian dauden iku frankistak ahalik eta denbora laburren kartzeko. Era berean, Pedro Mugurutza etorbideari izena aldatzeko aukera ere jasotzen du akordioak. Horretarako, herritarren parte-hartze prozesua hasiko dute, eta herritarrek erabakiko dute etorbideari izena aldatu behar zaion ala ez.



Mugurutza 1893an jaio zen, eta Madrilen hil zen 1952an. Francoren lehen aholkulari, Espainiako Gorteetako prokuradorea eta frankismoaren aldeko izanik kargu garrantzitsuetan aritu zen.

Besteak beste Francoren gerraosteko arkitektura zuzendari nagusi izan zen. Elgoibarko adopzio- seme izendatu zuten 1943an, seme kuttun 1946an eta kale batek bere izena dauka.



Eguneko Zentroko kideek txangoa egin dute

Elgoibarko Eguneko Zentroko kideek Debara egin zuten txangoa joan zen astean. Arduradunek esan dute "primeran" pasatu zutela. Eguraldi ederra izan zuten, eta zentroko kideentzat esperientzia paregabea izan zen.

Robotika Gazteak hartu zuen Ikastolako frontoia zapatuan


Euskadiko Hezkuntza Robotika Txapelketaren hirugarren ekitaldia jokatu zuten zapatuan, Ikastolako frontoian. Tailer teknologikoetan diseinatu eta programatu dituzten robotekin lehiatu ziren Debabarreneko 8 eta 16 urte bitarteko 75 bat gazte, hiru ataletan banatuta: Space atalean JLA taldeak aurkeztutako maketak irabazi zuen lehen saria, Hiruko Taldeak bigarrena eta Los Fantasmicos izeneko taldeak hirugarrena. IVS1 atalean, berriz, Debako Monobot taldea gailendu zen. Elgoibarko Legendarios IMH taldeak lortu zuen bigarren postua eta Soraluzeko Kolore Lorek hirugarrena. Azkenik, Rescue, atalean Elgoibarko Las



Jugadoras taldearen robotak irabazi zuen. Elgoibarko eta Azpeitiko ikasleekin osatutako Urkotronic taldeak lortu

zuen bigarren postua eta Elgoibarko Mandabot taldea sailkatu zen hirugarren.

Txankakuako merkatariek Stock Feria egingo dute bihar Maalako parkean



Herriko merkataritza txikiari bultzada emateko asmoz, Stock Feria antolatu du Txankakua Merkatarik Elkartek biharko. Maalako parkean egingo dute, 10:00etatik 14:30era. Elkarteko 18 establezimenduk hartuko dute parte, eta eskaintza bereziak egingo dituzte. Ohi bezala, feriarik amaiera emateko 600 euro zozketatuko dituzte erosketaren ondoren. Zozketa 14:00etan izango da Maalako parkean bertan, eta saria jasotzeko ezinbestekoa izango da saritutako boletoaren jabea unean bertan han egotea. Aurten ondorengo hauek hartuko dute parte: Arauri lurrindegia, Casa Astigarraga, Ecenarro merzeria, Ikus optika, Ferpi modak, G&M jantzidenda, Goiara drogeria, Ipintza margoak, Iria moda, Iriondo kirolak, Kala loradenda, Klitz moda, Moma jantzi-denda, Muruamendiaraz gozotegia, Nalai oinetakoak, Olaia estetika, Sara jantzi-denda eta Uzuri optika.

Pentsio duinen aldeko aldarria egin dute

Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna izan zen martitzenean, eta egun hori aitzaki hartuta, pentsio duinen aldeko manifestazioa egin zuten Eibarren, Debabarreneko pentsiodunek. Ondorengo aldarriak eskatu dizkiete erakundeek: euren premietara egokitutako etxebizitza; (berokuntza, argia eta gasa bermatuta egotea), botikak doan osasun beharren arabera, era guztietako probetza ezabatzea adinekoen artean, adinekoen zentroetan hobekuntzak egitea eta



bertako langileen ratioak hobetzea; eta mendekotasunari lotutako beharrei erantzuteko bitarteko eta laguntzak hobetzea.

Elgoibarko pentsiodunen taldeak, bestalde, urriatik abendura bitartean sei el-

C.D. Elgoibarren zozketa

C.D. Elgoibarrek txosna jarri zuen hilabeteko azken zapatuko ferian, eta klubeko kamiseta eta gaztaz osatutako otarra zozketatu zuen. 10101 izan da zenbaki saritua.

Zabalik dago Mendaroko ludoteka berria

Astelehean zabaldu zuten Mendaron ludoteka berria, Zelaikua Plazan. Orain arte, Herriko Enparantzan izan du egoitza ludotekak, eta orain, hutsik gelditu den leku horri zein erabilera eman aztertzen ari da Udala. EHBilduren udal gobernua ariketa fisikoa egiteko makinak jarriko zituela esan zuen aurreko legegintzaldian, baina oraindik ez dago argi zer izango den. Iñaki Arregi alkateak jakinarazi du ari direla enpresa ezberdinek aurrez aurreko aztertzen, baina beste erabilera batzuk ere ikusten dizkiotela lokal horri.



karretaratzetarako deia egin du: Urriren 7an eta 21ean, azaroaren 4an eta 18an, eta abenduaren 2an eta 16an. Kalegoen plazan izango dira, 19:00etan.

Rodisan 15 minutuko lanuzteak egin dituzte enpresak iragarritako kaleratzeak salatzeko

Enpresak proposatutako azken neurrien kontra, 15 minutuko lanuzteak egiten ari dira Rodisan, goizeko eta arratsaldeko txandetan. Irailaren 11n batu ziren langileen ordezkariak enpresako zuzendaritzarekin, eta LABek salatu duenez "neurri gogorrak" proposatu zizkieten zuzendaritzatik, besteak beste enpresako produkzioa 10 egunetan gelditzea eta 45 langile kaleratzea. Urrian lau egunez etengo luke produkzioa enpresak, azaroan beste lau egunez eta bi egunez abenduan. Soldatetan ez du eraginik izango neurri horrek, baina langileek itzuli egin beharko dituzte egun horiek. Era berean, 45 langile kaleratzeko asmoa ere agertu du zuzendaritzak. Horietatik hamasei kontratu partziala duten langileak dira. Gainerakoak nortzuk izango diren ez dute zehaztu. Esan duten bakarra da beste 29 langile soberan dardela enpresan eta nahi duenak izena eman dezakeela abenduaren 31a aurretik enpresa uzteko. Hala ere, zuzendaritzak ez du



zehaztu enpresa euren gogoz lagako duten langile horiek jasoko duten konpentsazioa. Era berean, 2020an ez dutela errelebo kontraturik sinatuko ere aurreratu die enpresak langileen ordezkari (2019koak sinatuta daude).



Jon Iñarritu EHBilduko diputatuarekin solasaldia, urriaren 9an

Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskunderen aurrean EHBilduren plangintza politikoa eta estrategikoa azaltzeko herri batzarra antolatu du Elgoibarko EHBilduk. Ikasturte politiko honetan alderdiak dituen helburu eta erronkak azalduko dituzte, eta horretarako gonbidatu dute Jon Iñarritu diputatua. Itxaso Egaña EHBilduko zinegotziak egingo dio elkarrizketa Iñarrituri. Saioa datorren eguaztenean izango da, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Giro onean joan dira San Migel jaiak

Eguraldi ona lagun, giro onean ospatu zituzten asteburuan San Migel jaiak Aiastia auzoan. Barikuan hasi zituzten jaiak kalejirarekin, eta iluntzean, Borja Uzuriagaren omenezko dantza saioa egin zuen Haritz dantza taldeak, Murkaikupe frontoian. Jaien artean, lehiarako tarte ere izan zuten Aiastian. Domekan, esaterako San Migeleko XIII. Artzain Txakur Txapelketa jokatu zuten domekan, San Migel Egunez. Euskal Herriko Arraza libreko finala ere bazen Aiastiako zelaietan jokatu zutena, eta sei lehiakide aritu ziren lehian, zortzi txakurrekin. Juan Ignacio Irakulis izan zen artzainik onena. Lehen postua lortu zuen Beltz txakurrarekin eta bigarrenkoa Bat txakurrarekin egindako lanagatik. Jose Antonio Arrillaga aiastiarra eta Txiki txakurra sailkatu ziren hirugarren postuan. Txahalaren zozketan Oier Baltzola izan da sariduna, 3754 boleto zenbakiarekin.



“Onomastikak erakusten du euskalduntze berantiarraren teoriak ez duela zentzurik egun”

► LUIS MARI ZALDUA EUSKAL FILOLOGIAN DOKTOREA

‘Erroma Euskal Herrian’ zikloaren barruan, ‘Euskalduntze berantiarraren teoria: egia ala gezurra’ hitzaldia eman zuen irailaren 18an Elgoibarren Luis Mari Zalduak (Urnieta, 1965). Euskal filologian doktorea da Zaldua, bai eta euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiako Onomastika batzordeko kidea ere. Zikloko hirugarren hitzaldia izan zen Zalduarena, azkena. Elgoibarko Izarrak antolatu zuen zikloa, Udalaren laguntzarekin, eta Zalduaren aurretik Jokin Lanz historialaria eta Juan Martin Elexpuru filologoa izan ziren gurean.


- AINARA ARGOITIA -

◆ Zer dio euskalduntze berantiarraren teoriak?

Teoria horrek adar asko ditu, eta ni adarkadura modernoena eta, nahi bada, muturrekoena azaltzera nator. Adarkadura horrek, Josu Venero zine zuzendariak eta Alberto Santana historialariak *Baskoniako historia bat* dokumentalean aurkeztu zuten horrek, dio orain dela 2.000 bat urte, erromatarrek hona iritsi zirenean, hemen, Baskoniako mendebaldean, ez zela euskaraz hitz egiten. Euren ustez, euskara Erdi Aro goiztiarrean iritsi zen hona, Akitanatik, Bagnères de Luchon eta inguru horretatik, eta VI. mende aldera indartu zen Iruñerrian, gero, Arabako lautadatik barrena, itsasaldera zabaltzeko. Hipotesi horren arabera, VIII-IX. gizaldian zabaldu zen euskara honaino.

◆ Zientzia komunitateak baztertutzat zeukan euskalduntze berantiarraren teoria. Zerk edo nork hauspotu du orain berriro, eta zergatik?

Sentsazionalismoak. Azken batean, zientzia oso gauza aspergarria da, eta jakina, Euskal Telebistan dokumental-sorta bat eman nahi badute eta nolobait jendearen arreta erakarri nahi badute, zer edo zer apurtzailea saldu beharra dute. Eta zer egin duten? Bada, teoria berrituz saldu berez zaharra eta bazterrekoa den teoria. Badago gero beste jende bat, serioagoa, esaten duena ez dagoela behar beste frogarik kontrakoa esateko: alegia, hemen antzina euskara egiten zela esateko. Eta, bai, egia da Gipuzkoan eta neurri batean Bizkaian ere, hutsune bat badela epigrafian [hilerrietan eta aldareetan zizelkatuta dauden izenak], baina ez dugu ahaztu behar epigrafiaz aparte badaudela beste tresna onomastiko batzuk, toki izenen azterketa-eta, balio dutenak egiaztatzeko euskalduntze berantiarraren teoriak ez duela zentzurik. Puntada finagoak emanez, garbi ikusten da erromatarrek iritsi zirenean, bai eta aurretik ere, beste kultura batzuen eragina ger-



tatu zenean, euskaldunak bazirela hemen, euskal sistema fonetiko moldatu eta egokitu zituztelako beste kultura horietatik hartutako maileguak. Gertatzen dena da filologo guztiak ez direla onomastikariak, ez diren moduan sendagile guztiak traumatologoak, estomatologoak edo otorrinolaringologoak, eta jakina, belauko ebakuntza egiteko traumatologoa izan beharra dago; ez du balio otorrinolaringolo ona izateak. Hizkuntza gaietan berdin.

◆ Zeintzuk dira teoria hori babesten dutenen arrazoibide nagusiak, baina?

Orduko iturriak dauzkagu, zuzenekoak (epigrafiak) eta zeharkakoak (garai hartako geografoek, Tolomeok, Estrabonek eta Pliniok, aipatutakoak). Kontua da geografo horiek aipatzen dituzten

toki-izenak, Oiartzun ez beste guztiak, jatorri ilunekoak edo jatorri zeltiarrekoak direla eta horri eusten diotela gauza hauetaz dakite- nek hemen ez zela euskaraz hitz egiten esateko. Baina epigrafiak berak erakusten du, baietz. Miñaon, Gasteiztik gertu, *helasse* euskal hitza agertu zen hilerriko epigrafia batean. *Helasse* hori, aurrean "h"-batekin eta barruan afrikari batekin, euskara da argi eta garbi, iberieraz eta zeltibereraz ez dagoelako "h"-rik eta latinez ere ez hor, eta gainera, txistukaria adierazteko "ss" erabiltzea euskararen kontuak direlako.

♦ Iberoak aipatu dituzu. Teoria honek badu Vascoiberismo edo Eusko-iberismo korrontearekin zerikusirik. Ala?

Bai, erabat. Euskararen eta iberieraren ahaidetasuna aldarrikatzen zuen Eusko-iberismoak, eta luze iraun bazuen ere, XX. mendeko hizkuntzalariek guztiz baztertzekoa zela erakutsi zuten. Teoria hura desegin zutenean sortu zuten euskalduntze berantiarren teoria. Gomez Moreno arkeologoak -beste batzuk ere izan ziren bere aurretik, baina domina berak jantzi zuen- lortu zuen idazkera iberiarra edo pale-hispaniko hura deszifratzea. Esan bezala, ordura arte uste zuten euskara zela antzinako iberoen hizkuntza eta Espainiako zati handi batean hitz egiten zena, ez zutelako ulertzen zer jartzen zuen idazkera palehispaniko haietan. Lortu zutenean deszifratzea, baina, konturatu ziren ez zela euskara eta bat-batean biluzik gelditu ziren, euskarazko inolako testigantzarik gabe Hego Euskal Herrian. Akitanian bakarrik topatu zituzten euskarazko testigantzak eta ondorioztatu zuten handik zabaldu zela euskara hona. Baina 1925. urtean Gomez Moreno arkeologoak bere teoria plazaratu eta hogeita hamabost urtera, 1960. urtean, topatu zuten Lergako idazkun ezaguna, erromatarren garaiko gizon baten euskarazko oroitarrian, zeinean XXI. mendeko euskaraz erraz ulertzen diren bi hitz ageri diren: *Umme sahar*.

♦ 'Baskoniako historia bat' atalean Koldo Mitxelenaren, euskarak izan duen ikerlaririk errespetatuenaren, irudiak erabili zituzten, bai eta Euskaltzaindiaren egoitzarenak ere. Zer duzu esateko horri buruz?

Oso manipulaturik dagoen dokumentala dela. Koldo Mitxelena bakarrik ez. Hipotesia frogatzeko, dokumentalean unibertsitateko bi hizkuntzalari agertzen dira. Joseba Abaitua eta Joakin Gorrotxategi. Hizkuntza modernoetan aditua da Abaitua, baina antzinako hizkuntzez ez zaio lanik ezagutzen. Bigarren filologoa Gorrotxategi da, euskararen historian espezialdutako filologo eibartarra. Dokumentalean Gorrotxategik dio pentsa daitekeela euskara apur bat hitz egiten zela hemen, baina euskalduntze berantiarren hipotesiaren alde egongo balitz bezala aurkezten digute, Iruña-Veleiako harrerien aurrean. Bere hitzen eta hainbat irudiren erabilera okerra egiten dute, eta manipulazioa argia da, Gorrotxategik espreski esan zuelako 2015ean argitaratutako lan

batean ez zetorrela bat euskalduntze berantiarren hipotesiarekin.

♦ Iruzurra da beraz dokumentala. Uste okerretan oinarritutakoa barik fede txarrez egindakoa.

Bai. Hasieratik aritu dira gezurretan, euskalduntze berantiarren teoria berria dela aditzera ematen dutelako eta ez delako hala. Pentsatzekoa da euskalduntze berantiarren teoriaren helburu nagusia ere gure herriaren harrotasun ikurra dena ahultzea zela, hizkuntza delako euskaldunon nortasunaren oinarria. Badago euskaldunak hemengoak ez garela esan nahi bat. Bagara, baina. Nola nahi ere: kanpotik etorritakoak bagina ere, zer? Baina bai, sinesmen eta mitoez harantzago dagoen Euskal Herriaren eta euskaldunon beste historia bat ezagutuko genuela zioen aurkezpenean Santanak, euskaldunon aintzinakotasuna mitoa balitz bezala.

♦ Ez zarela batere doktrina zalea esan duzu; nahiago duzula datuak eman, nork bere ondorioak atera ditzan. Eman ba adibideren bat.

Ni onomastikaria naiz. Ez naiz diakronista peto-pettoa gauza hauetan, baina onomastikak erakusten du euskaraz 'Getaria' dena *Cedeira* dela galegoz, eta *Caetarian*, latinez [Latin klasikoan (keltaria) ahoskatua, arrain lantegia]. *Caetarian* latinezko berbak eman baldin badu euskaraz Getaria, eta galegoz, Cedeira, ikusten da euskaldunek modu batera moldatu dutela izen hori eta galegoek beste batera. Badakigu, gainera, aldaketa guztiak garai bat izaten dutela, denbora jakin batean gertatzen direla, eta aldaketa hori adibidez, hasierako belarearen sabaikaritzea, Bisigotuen garairako emanda zegoela. Horrek erakusten diguna da hitz hori erabiltzen hasi zirenean hemen euskaldunak bazeudela, euskaldunak izan ez balira gaur ez genuelako Getaria

esango, baizik eta ***Cedaria*, ***Cederia* edo halako zerbaite. Begira, bada Goierriin rotunda bat euskal filologiaren inguruko ikastaro laburtu bat dena.

♦ Nola?

Hiru izen ageri dira rotunda horretan, Zegama, Zerain eta Segura. Hirurak dira maileguak, beste hizkuntza bateko izenak, eta sortzez "s" bat zuten denek hasieran, baina gaur bik "z" dute, eta hirugarrenak mantentzen du "s"-a. Baina badakigunez Segura Erdi Aroko mailegua dela, ondoriozta dezakegu aldaketa hori Ertaroa baino lehenago eman zela, erdaratik Segura izena hartu zutenean euskaldunak ez zutelako euskarara moldatu eta erdal izena erabiltzen jarraitu zutelako. Beraz zergatik esaten ditugu Zegama eta Zerain eta ez erdal eran bezala? Bada, aldaketek ere garaiak izaten dituztelako. Hori gaur ere ikusten dugu. Gure aurrekoek 'Perian egon naun' esaten dute, baina gaur egungo gazteek ez dute 'perian' esaten, 'ferian' baizik. Aldaketak ere ez direlako eternoak izaten, eta aldaketa hauek oso zaharrak dira.

"EITBn dokumental-sorta batekin jendearen arreta erakarri nahi badute, zer edo zer apurtzailea saldu beharra dute"



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Aita Agirre parkean jarri duten pista berdea oso arriskutsua da: "Hasiera batean ez du ematen, baina Aita Agirre parkean dagoen pista berde hori umeentzako oso arriskutsua da. Gune berdea biguna da, baina ertzak oso gogorrak dira. Ume bat baino gehiago erori da dagoeneko, eta min handia hartu du. Zerbait larriagoa gertatzeko arriskua ikusten dugu". Hirigintzatik esan dute parke hori ume nagusiagoentzako planteatu zutela, eta horregatik ez zituztela ertz horiek babestu, baina gaia aztertuko dutela.



Kultur Etxe atzeko parkean dagoen jarlekua kez dago lekuri egokienean: "Kultur Etxe atzeko parke txikian jarleku bat dago, oso leku arriskutsuan. Parketxo horretan umeak ibiltzen dira jolasean, eta jarlekura igotzen dira askotan, atzean ibaia dagoela konturatu gabe. Haurrek ez dute inon arriskurik ikusten, eta ez dira kontziente izaten jolas soil batek sortu dezakeen egoera larriaz. Jarleku hori lekuz mugitzea eskertuko genuke ezbeharren bat gertatu baino lehen". Hirigintza Sailetik jakinarazi dute jarleku hori lekuz aldatuko dutela.

Maltzagako bidegorria oso iluna da: "Maltzagarako bidegorrian farolak falta dira. Goizean goiz edo iluntzean patsiatzera joaten garenok linterna eraman behar izaten dugu, eta hala ere, ez da ondo ikusten. Beldurrez ere joaten gara, ilunean, norbait ezkutatuta egon daitekeelako. Eskertuko genuke bide horretako argiteria hobetzea". Bidegorria Foru Aldundiaren eskumenekoa dela esan dute Udaleko arduradunek. Dena dela, bidegorria Eibarrekin lotzen dutenean, argiztapena ere hobetuko dutela adierazi dute.



Zergatik ez du Udalak Aita Agirre parkea oinezkoentzako utzi?: "Kulturgune berria, liburutegia eta haurrentzako parkea egin dituzte Aita Agirren, baina ez dituzte autoak hortik kendu. Uste dugu horko aparkaleku kopuruak ez duela konpontzen Elgoibarrek aparkatzeko daukan arazoa, eta, aldiz, iruditzen zaigu gune horrek asko irabaziko lukeela oinezkoentzako, autorik gabe. Oinezkoentzako espazioak falta dira Elgoibarren". Hirigintzatik esan dutenez, Aita Agirreko aparkaleku horiek beharrezkoak dira alde zaharreko bizilagun eta merkatarientzako, ingurune horretako etxebizitzek ez daukatelako aparkalekurik.



“Futbolak eramaten nauen lekura joango naiz”

► MIKEL GURRUTXAGA FUTBOLARIA

Umetan hasi zen Mikel Gurrutxaga (Elgoibar, 1996) futbolean C.D. Elgoibarren, eta berehala fitxatu zuen S.D. Eibar taldeak. Hamabi bat urte egin zituen talde armaginean, eta handik Amurrora joan zen jokatzera. Han zegoela, Alavesek Finlandiako JS Hercules taldea erosi zuen, eta hara joateko aukera eskaini zieten taldekide batzuei. Ez zuen birritan pentsatu: maleta egin eta Finlandiara abiatu zen. Mailaz igotzea zuten helburu, eta ez zuten lortu, baina berak defentsa onenaren saria jaso zuen, eta horrek Estoniarako bidea zabaldu zion. Gaur egun Tallinen bizi da, Estoniako hiriburuan, eta hango Paide Linnameeskond futbol taldean jokatzeko du, lehenengo mailan. Futbolari profesionala da, eta futbola du ogibide eta pasio.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Futbolak eramán zaitu atzerrira, Finlandiara lehenik eta orain Estoniara. Nola iritsi zara horra?

Gasteizen ikasten ari nintzela, Amurrio taldean jokatzeko nuen. Urte hartan Alavesek nazioarteko proiektu bat jarri zuen martxan, eta horren barruan Finlandiako futbol talde bat erosi zuen. Euskal Herriko eta Espainiako hainbat jokalariri egin ziguten hara joateko eskaintza, eta gehiegi pentsatu gabe, baietz erantzun nuen.

♦ Zein helburu zenuten Finlandiako taldean?

Urtebeterako eskaintza egin ziguten, eta pentsatu nuen esperientzia ona izango zela, bai futbolari dagokionean eta baita maila pertsonalean ere. Denboraldi oso polita izan zen, eta gauzak oso ondo joan zitzaizkidan. Talde bezala ez genuen lortu Alavesek jarritako helburua: 2.B mailan zegoen taldea, eta mailaz igotzea zen helburua, baina postu bategatik ez genuen lortu. Alavesek orduan Finlandiako taldearekin zeukan akordioa etetea erabaki zuen. Bere nahia zen urtetik urtera mailaz igotzen joatea, lehen mailako talde profesionala sortzeko, baina ez genuen lortu. Nik, baina, denboraldi ona egin nuen eta ligako defentsa onenaren saria eman zidaten. Sari horrek eman zidan hurrengo denboraldian Estonian jokatzeko aukera.

♦ Eta gehiegi pentsatu gabe, berriz ere maleta egin eta Estoniara joan zinen. Zer eskaintza egin zizuten?

Tallinen nago jokatzeko, Estoniako lehenengo mailako talde batean. Talde profesionala da, eta futboletik bizitzeko aukera eman dit. Talde oso serioa da, eta oso gustura nago. Orain arte sailkapen erdian ibili izan da taldea, baina aurten jokalaria oso onak fitxatu dituzte eta oso ondo gabiltza. Sailkapeneko goiko postuetan gaude, eta oraindik badaukagu aukera liga irabazteko. Hamar talde gaude guztira ligan, eta talde bakoitzaren kontra lau aldiz jokatzeko dugu, bestela txapelketa oso motza izango litzatekeelako. Udako liga moduko bat jokatzeko dugu, hemen neguan ezin delako futboleko jokatu.

Gurrutxaga Eibarko talde nagusiarekin.

◆ Liga irabazteak Europa League jokatzeo aukera emango lizuke?

Ligako irabazleak Txapeldunen Liga jokatzeo sailkapen fasea jokatuko luke, eta bigarren eta hirugarren sailkatuek eta Kopako irabazleak, berriz, Europa League jokatzeo sailkapen fasea. Normalean, ligako hiru lehenengoetako batek irabazten du Kopa ere, beraz, laugarren sailkatuak ere izango luke Europa League txapelketarako sailkapen fasea jokatzeo aukera. Hiru fase izaten dira, eta ez da erraza izaten irabaztea. Espainiako Ligan zazpigarren sailkatuak jokatzen du fase hori, eta han bi kanporaketa gainditu behar izaten dira txapelketa jokatu ahal izateko.

◆ Txapeldunen Liga edo Europa League jokatzea lortuko bazenute, Espainiako Ligako talderen baten kontra jokatzeo aukera izango al zenuke?

Bai, tokatu daiteke. Esperientzia oso polita izango litzateke niretzat. Taldea edozein izanda ere, maila handiko taldea izango litzateke, eta horrek ilusio handia egiten du. Gainera, betidanik ezagutzen dudan talderen bat izango litzateke.

◆ Nola bizi dute futbola Estonian?

Hemengo ligak eta Espainiakoak ez dute zerikusirik. Espainiako Ligako lehenengo maila eta Estoniako oso desber-



Paide taldearekin, baloia buruz errematatzen.

“Estonian oso desberdin bizi dute futbola”

dinak dira, eta Estoniako futbola eta Espainiako ezin dira konparatu, ez zaletasunari dagokionean, ezta ekonomiari dagokionean ere. Ez daukate inongo antzirik. Hemengo Ligako onenek Espainian bigarren mailan edo jokatuko lukete; sailkapen erdian dabilzanak 2B mailakoak edo izan daitezke, eta azken postuetan dabilzanak, berriz, hirugarren mailakoak. Estonian oso desberdin bizi dute futbola. Kulturalki ere ez dauka Espainian daukan pisua. Espainian futbola da kirol nagusia, eta medioek ere futbolari eskaintzen diote tarte handiena, baina hemen futbola ez da horren garrantzitsua. Une honetan, adibidez, auto rallya indarra hartzen ari da, munduko txapelduna estoniarra delako. Bestela, ez dakit zein kirol den hemen nagusia, futbola bera izan daiteke, baina ez Espainiako indarrarekin. Hemen Espainiako eta Ingalterako ligak jarraitzen dituzte askok, baina oso kultura desberdina da, eta ez dira Espainian bezalako fanatikokoak. Espainian jendeak asko hitz egiten du futbolari buruz lagunartean, baina



Gurrutxaga, Paide taldeko zaleak agurtzen.

Tallinen, Juanjo Gurrutxaga aitarekin.

hemen ez.

♦ Zuk futbola nola bizi duzu? Zer da zu-retzat futbola?

Futbola nire pasioa da. Umetan hasi nintzen futbolean jokatzen, eta nire ametsa futbolari izatea zen. Futboletik bizi nahi nuen, eta atzerrian lortu dut nire ametsa betetzea. C.D. Elgoibarren hasi nintzen futbolean. Bi urte egin nituen han, alebitan eta infantiletan jokatzen, eta gero Eibarrek fixatu ninduen. Eibarren hamar bat urte egin nituen, eta bigarren taldera iritsi nintzen. Eibar ordurako lehenengo mailan zegoen, eta talde nagusiarekin ere entrenatu nuen denboraldi-aurrean. Partida batean belauna apurtu nuen, eta lesio haren ondorioz, nire egoera asko aldatu zen. Lehenengo mailan jokatzea gertu ikusten nuen, eta ilusio handiz nengoen. Egia da nahiz eta entrenatzera iritsi, gero askok ez dutela lortzen lehenengo mailan debutatzea, baina nik banekuan ilusio hori. Hala ere, gauzak ez ziren nik nahi bezala irten Eibarren. Gero Amurrión jokatzen egon nintzen urte erdiz, Finlandiako aukera suertatu zen arte. Finlandian berreskuratu nuen berriz nire jokorearen maila, eta konfiantzaz jokatzen hasi nintzen berriro. Belauneko lesioa, zorienez, ahaztuta daukat, eta oso gustura nago hemen. Finlandian hasi nintzen berriz futbola lanbide bezala ikusten, eta ez naiz damutzen atzerrira joateko erabakia hartu izanaz. Amurrión jokatzen nuenean futbola ez nuen ikusten profesionaltasunez, gehiago zen afizio bat. Atzerrian eman didate futbola profesionaltasunez bizitzeko aukera, eta oso pozik nago hartutako erabakiarekin. Esperientzia oso aberasgarria ari da izaten.

♦ Futbolari lotutako blog bat ere badaukazu. Zer jasotzen duzu bertan?

Bai, iaz jarri nuen martxan. Futbola ni-retzat hezitzaile emozionala ere izan da, hau da, pertsona bezala garatzen eta hezten lagundu dit eta uste dut erreminta oso baliagarria dela pertsonen garapenerako. Nire ikuspegia eta esperientziak jasotzen ditut blogean.

♦ Atzerrira joan aurretik triatloi taldea jarri zenuten martxan Elgoibarren.

Zertan da proiektu hura?

Lagun batekin jarri genuen martxan proiektu hura, kirol minorizatuerei ere lekua egiteko. Futbolak eta eskubaloiak babes handia daukate Elgoibarren, baina bestelako kirolak ere sustatu behar dira, eta horretan lan handia dago oraindik egiteko. Triatloi taldean jende gutxi dago momentuz, baina taldea hor dago behintzat, eta horri esker triatloiak egin nahi dituen herritar batek Elgoibarko taldearen izenean lehiatzeko aukera dauka. Nik ez dut oraindik triatloirik egin, baina futbola uzten dudanean seguru egingo dudala bateren bat.

“Umetan hasi nintzen futbolean eta nire ametsa futbolari izatea zen”

♦ Tallinen bizi zara, 400.000 biztanle dituen Estoniako hiriburuan. Nolakoa da hango bizimodua?

Bizimodu lasaia daukat nik hemen, eta futbolaren bueltan bizi naiz. Asteazkenean zehar entrenatzera joaten naiz, eta asteburuan partidak izaten ditut. Tallin ez da horren hiriburu handia, eta lasai bizi naiz. Jendea Euskal Herrian baino hotzagoa da, eta harremanak ez dira horren estuak. Orain nire bikotekidea etorri da. Ikasketak bukatu ditu eta nirekin bizitzera etorri da. Ordu asko pasatzen ditut berarekin eta horrek asko laguntzen du.

♦ Noiz arte ikusten duzu zure burua Estonian futbolean jokatzen?

Ez dakit. Aspektu horretan ez daukat inolako helburu finkorik. Ez dut pentsatu etxera itzuliko naizen, hemen jarraituko dudanean edo beste herrialderen batera joango naizen. Aurten denboraldi oso ona egiten ari naiz, eta agian datorren urtean beste aterren bat irekiko zait. Momentuz beste urtebeterako kontratua daukat hemen, eta lanean jarraituko dut. IVEF ikasketak amaitzeko gradu amaierako lana falta zait, eta hori ere bukatu nahiko nuke aurten, horrek ere lagunduko dida-



C.D. Elgoibarrekin Zarautzen, Jon eta Ibon lagunekin.

lako ate berriak zabaltzen. Nik nahi dudana da futbolaz gozatzea eta hontaz bizitzen jarraitzea, eta une honetan ez zait asko inporta non. Futbolak eramaten nauen tokira joango naiz.

♦ Zeren falta gartzten duzu Estonian?

Gauza asko, baina, batez ere, lagunartean eta familian egoteko aukagun kultura. Euskal Herrian lagunek eta familiak pisu handia hartzen dute, eta hemen ez. Hemen ez dago kuadrilla girorik, eta niri gustatzen zait lagunekin irteeta. Hemen jendea hotzagoa da, eta ez dago kaleko girorik. Ez nago gaizki hemen, lasai bizi naiz, baina tarteka jaleo pixkat gustatzen zait.

Iban Gonzalezek irabazi du Araba Challenge probako sailkapen nagusia

Araba Challenge txirrindularitza probako azken etapa, bosgarrenkoa, jokatu zuten aurreko zapatuan Artziniegan, Artziniegako VII. Master Saria, hain justu ere. 93 txirrindulari lehiatu ziren 71 kilometroko ibilbidean eta Iker Eskibel izan zen azkarrena, azken hiru urteetan San Pedroko igoera irabazi duen txirrindulari eskoriatzarra. Eskibekek ordu bat, 45 minutu eta 21 segundotan osatu zuen Artziniegako proba. Gobike taldeko Iban Gonzalez elgoibartarra seigarren postuan sartu zen helmugan, irabazlearengandik 49 segundora. Gonzalez, baina, azkarrena izan zen Master 30 mailakoen artean. Honenbestez, sailkapen nagusiko lehen postuari eutsi eta bera da Araba Challenge lasterketako irabazlea, bere adin tartean.



Isidro Erretegiko idi pareak irabazi zuen Aiastiako idi-dema, eta Iñaki Burunza gailendu zen bola-jokoan

Kirolak ere izan du lekua Aiastiako San Migeletan. Aiastiako Kintopeko idi-dema lehiaketa jokatu zuten domekan auzoko probalekuan, eta Azkoitiko Isidro Erretegiko idi pareak gailendu zen, 54 plaza eginda. Garaikurra eta mantaz gainera, 900 euro jaso zituzten sarritzat. Audioko Galderren idiek lortu zuten bigarren postua, 53 plaza, 3 zinta eta 4,90 zentimetroko marka eginda. Elgoibarko Soarte sailkatu zen hirugarren postuan. Soarteren idiek 42 plaza, zinta laurden bat, eta 1,27 zentimetroan mugitu zuten harria. Hiru txirlo bola-joko txapelketan Iñaki Burunza soraluzearra izan zen onena, bost txirlo botata. Lehia estua izan zen, lehen lau sailkatuek bota baitzituzten bost txirlo. Oier Azumendik egin zuen bigarren eta Jabier Osorok hirugarren.

Elosutik Pol-Polera eta handik Irukurutzetara, ikasturteko lehen mendi irteeran

Mendi irteera sasoiari hasiera emateko Elgoibarko mugetan dagoen paraje eder bat ezagutzeko irteera antolatu zuen Morkaiko mendi taldeak, Herri Eskolarekin eta Ikastolarekin elkarlanean. Autoan Elosuraino joan eta Elosumendira abiatu ziren oinez 39 ume eta hainbat heldu. Handik Pol-Pol aldera jo zuten, bidean dauden dolmen eta tumuluak ikusiz. Horien artean txukundu berri duten Keixetako trikuharria bisitatu zuten. Pol-Poleko iturrian indar berriro ondoren, batzuek Irukurutzetarako bidea hartu zuten, eta beste batzuk Elosura bueltatu ziren atzera.



Haundik Erreterian lortu zuen denboraldiko lehen garaipena



L


iga txapelketa bi porrotekin hasi eta gero, Haundik hirugarren jardunaldian lortu zuen estreinako garaipena. Elgoibartarrek, gainera, lehen bi partidak irabazita zegoen Touring taldearen aurka 0-2 irabazita lortu zuten denboraldiko lehen garaipena, Erreterian. Haundik Mutrikuren aurka jokatu du bihar, hilak 5, Mintxetan. Mutrikuarrek hirugarren daude Ohorezko Erregional Mailako sailkapenean, 7 punturekin. Goiko argazkian C.D. Elgoibarrek Haundirako eginiko fitxaketak: Pablo Turrillas (entrenatzailea) Josu Barrenetxea, Antxon de la Arada, Iñaki Mugica, Ander Pastroin, Ander Moya, Ander Arkotxa eta Asier Larrea (2. entrenatzailea).

Hamalau lagunek eman dute izena Ixa Rodriguezek gidatzen duen boxeo ikastaroan



Udal Kirol Patronatuak antolatutako boxeo ikastaroak herritarren interesa piztu du, eta hamalau lagunek eman dute izena Ixa Rodriguez boxeolari profesionalak gidatzen duen ikastaroan. Ate irekien jardunadia egin zuten lehenik, interesatuek boxeoaren probatzeko, eta bertara azaldutako askok eman zuten gero izena ikastarorako. Martitzen eta eguenetan egiten dituzte saioko Olaizaga kiroldegian. Ixa Rodriguezek Espainiako txapelketa izango du hurrengo erronka bere ibilbide profesionalean. Asmo hori gauzatzeko, bost urterako kontratua sinatu berri du Madrilgo Promotion Boxing Kas boxeo sustatzaile enpresarekin. Espainiako garrantzitsuenetarikoa dela azaldu du soraluzearrak eta "pizgarri" handia dela bere hurrengo erronkarako, "minieuli pisu kategoriako Espainiako txapelketa irabaztea".

Lendinez, Lariz eta Maiora maila onean Gorbeia Suzien lasterketan



Gorbeia Suzien Ternua mendi lasterketa indarberrituta itzuli da aurten, iaz atsedean hartu ostean. Lehen aldiz kilometro bertikala antolatu dute, eta emaitza onak lortu zituzten Ainhoa Lendinez eta Iñigo Lariz elgoibartarrek, irailaren 27an jokatu zuten proban. Gizonezkoetan Antonio Alcalde izan zen 4,2 kilometroko ibilbidea osatzen azkarrena, 37 minutu eta 26 segundoko denborarekin, eta, emakumezkoetan Yngvild Kaspersen norvegiarra gailendu zen 43 minutu eta 20 segundoko denborarekin. Lendinezek (46:51) hirugarren egin zuen. Lariz laugarren postuan sailkatu zen, hirugarren egin zuen Xabier Maciasen denbora berdina eginda: 38 minutu eta 30 segundo. Domekan, berriz, lasterketa luzea (31 km.) jokatu zuten eta Maite Maiorak laugarren egin zuen Gorbeia Suzien Parke Naturalean barrena jokatu zuten proban. Yngvild Kaspersen (3:34) gailendu zen emakumezkoetan. ISF Spain-Andorra Series zirkuituko sei garren eta azken proba izan zen Gorbeia Suzien.

Aita Agirre kultur jaia egingo dute asteburuan



Irailaren 17an zabaldu zuten Aita Agirre kulturegunea, eta irekiera hori ospatzeko kultur jaia antolatu du Udalak asteburu honetarako. Udalaren helburua irekiera hori herritarrekin ospatzea da, eta horretarako hainbat ekintza prestatu ditu. Gaur iluntzean hasiko dira ekitaldiak: Udal Musika Bandaren eta Mauxitxa txarangaren kalejirak, erraldoi eta buruhandiak, Taupadaren antzerkia, mapping-a eta Hesian taldearen kontzertuak izango dira, besteak beste. Bihar, bestalde, umeentzako eta nerabeentzako parkea jarriko dute goizez eta arratsalde, eta iluntzean, Beti Sua txarangaren kalejira egongo da. Egitarau osoa agendan ikus dezakezue.

Ane Labakak irabazi du Gipuzkoako Bertso Txapelketako final zortzirenetako Elgoibarko saioa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako kanporaketa bat jokatu zuten domekan, Elgoibarko Herriko Antzokian, eta Ane Labakak irabazi zuen. Sei bertsolari aritu ziren kantuan eta Ane Labakak (Lasarte-Oria, 1992) lortu zituen puntu gehien: 458,5. Garaipen horri esker, azaroaren 2an Azkoitian jokatu den final laurdenetako saioan kantatuko du. Honela geratu zen sailkapena, Labakaren atzetik: Jokin Uranga (443,5), Eñaut Martikorena (437), Iñaki Gurrutxaga (430), Unai Gaztelumendi (424,5) eta Endika Igartzabal (403,5). Bertsozaleek ez zuten hutsik egin Elgoibarren. Sarrera guztiak agortu ziren, eta Herriko Antzokia bete egin zen.



Errosario kaleko amaren ezpata dantza, domekan

Haritz Euskal Dantzari Taldeak Errosario kaleko amaren ezpata dantza egingo du domekan. Meza Nagusia 12:00etan izango da, eta bertan, ezpata txikiek dantzatuko dute. Meza ostean, ezpatadantzari guztiak elizaren kanpoaldean bilduko dira, dantza egin eta prozesioari ekiteko. San Bartolome kaletik abiatuko dira, eta Kultur Etxe parean geldialdia egingo dute. Ondoren, Errosario kalean barrena sartu eta Ama Birjinaren azpian dantzatuko dute. Azkenik, Kalegoen Plazara itzuli eta bertan egingo dute azken dantza.

'Mauriziak ez dau inor hil' ikuskizuna bihar, 'Euskara ala Ezkara' jardunaldiaren barruan

Euskarak mundu digitalean duen presentzia landuko dute bihar hamasei adituk IMHko areto nagusian *Euskara ala Ezkara* jardunaldian, eta horren barruan, *Mauriziak ez dau inor hil* ikuskizuna eskainiko dute Ines Osinaldek eta Lorea Argaratek. Egun osoko jardunaldiari amaiera emateko emanaldia izango da hau. 16:30ean hasiko da, doan. Ordu horretarako IMHko areto nagusiko ateak zabaldu egingo dituzte, eta edozein herritarrek izango du bertara sartzeko aukera. Euskara ala Ezkara zikloa Elgoibarko Izarrak, Udalak eta Puntu.eus fundazioak antolatu dute elkarlanean, eta Danobatgroup taldearen diru-laguntza jaso du. IMHk antolatzaileen zerbitzura jarri du eraikina.



Pepa Calleja eta Mari Jose San Millanen koadroen erakusketa zabalduko dute gaur eta hilaren 19ra arte egongo da zabalik


Pepa Calleja eta Mari Jose San Millanek margo erakusketa zabalduko dute gaur, Kultur Etxean. Olioak egiten ditu Callejak, eta akrilikoak San Millanek. Botoero eta Picasso margolariak ditu gustuko Callejak, eta haien koadroak margotzen ditu. San Millanek, aldiz, ez dauka inspirazio iturri konkreturik, eta paisajeak edo lorak margotzen ditu, batez ere. Urteak daramatzate biek ere margotzen. Orain dela hamabost bat urte hasi zen Calleja koadroak egiten. Egur arte tailerrean egin zituen ikastaro batzuk, koloreak lantzen ikasteko, baina margotzeko teknika bere kabuz landu du. San Millan orain dela 50 bat urte hasi zen margotzen, Lucas Alberdi Eibarko grabadorearekin. 25 bat koadro jarri dituzte erakusketan, hasierako urteetan eginikoak eta baita azken urteetakoak ere. Hilaren 19ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik larunbatera, 18:30etik 20:30era.



San Millan eta Calleja, Kultur Etxean.

Udane Juaristi eta Alazne de la Iglesiaren lanak saritu dituzte Mendaroko Margo Lehiaketan

Hogeita bi margolarik parte hartu zuten zapatuan Mendaroko Aire Libreko Margo Lehiaketan, eta bi sail banatu zituzten: 14 urtez azpikoena eta gorakoena. Sail nagusian, Udane Juaristi azkoitiarraren margolana saritu zuen epaimahaiak, 700 euroekin. Bigarren, Jorge Lopez gasteiztarrek egin zuen, eta hirugarren, Jose Miguel Arraunz erandiorrak, eta 400na euro jaso zituzten biek saritzat. 14 urtez azpikoetan, berriz, Alazne de la Iglesia mendaroarrak irabazi zuen, eta margotzen jarraitzeko materiala jaso zuen saritzat. Bigarren lanik onena, berriz, Naia Zubiaurrerena izan zen, eta irabazlearen sari berdina jaso zuen. Epaimahaia, Aitor Etxeberria, Aitor Sarasketa eta Ricardo Azkakortak osatu zuten. Aurten, berrikuntza bat ere izan da: Herritarren Saria. Herritarrek eurek euren margorik gustuekuenak aukeratu ahal izan zituzten, eta Lucio Fernandez margolanak jaso zituen boto gehien. Guztira, 70 herritarrek eman zuten botoa. Lan guztiak lagun Betikoak taldearen ondoko lokalean jarriko dituzte ikusgai urriaren 4tik 13ra.



Udane Juaristi, 14 urtez gorako saileko irabazlea. (Arg.: Maxixatzen)

Kilometroak jairako autobusik ez da egongo Mendarotik

Zarautzen izango da aurten Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak jaia, domekan, urriaren 6an. Mendaroko Udalak urtero antolatu izan du ikastolen aldeko jaira joateko autobusa, baina aurten, Zarautzera joateko garraio publikoa erabiltzera bultzatu nahi du. "Trena da Zarautzera joateko garraibide sostengagarriena, eta horregatik, aurten, Udalak ez du autobusik jarriko", jakinarazi dute.

Antzinako ogibideak domekan, plazan

Makina Erremintaren Museoa antolatuta antzinako ogibideei buruzko erakustaldia egingo dute domekan, Kalegoen plazan. 11:30ean hasiko da, eta jardunaldiaren barruan 9 eta 12 urte bitarteko umeentzako tailerrak ere egingo dituzte, doan. Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak babestu dute ekimen hau.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest.

☎ 602 850 826

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 633 150 376

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 632 228 545

Adinekoak zaintzen edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest nago. Bi lanetan esperientzia handia. Gauzez eta asteburuetan lan egiteko prest.

☎ 603 346 659

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 631 795 790

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.

☎ 612 556 910

Eskola partikularrak ematen dira: Kontabilitatea, finantza ekonomia eta LH, DBH eta Batxilergoko matematika.

☎ 666 042 710

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka zein asteburuetan. Esperientzia handia.

☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zaintzen edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. Titulua daukat.

☎ 602 047 812

Adinekoak zainduko nituzke, goizez, 15:00ak arte. Gauzez eta asteburuetan ere bai.

☎ 631 081 501

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia eta gomendioak ditut.

☎ 631 081 501

Adinekoak zainduko nituzke. Gauzez eta asteburuetan.

☎ 648 039 187

Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago.

☎ 632 630 483

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Titulua daukat. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 688 735 551

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 612 434 004

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke.

☎ 603 346 659

Adinekoak zainduko nituzke. Gauzez eta asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia eta gomendioak ditut.

☎ 688 842 791

Etxeak garbitzeko prest nago.

☎ 632 642 320

Eskaerak
Jatetxe baterako zerbitzaria behar da.

☎ 659 539 861

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Bidalitako curriculumak inmabima@gmail.com helbidera.

ETXEBIZITZAK.....

Pisu atsegina eta argitsua salgai Elgoibarren, Ubitarte 11n. 165.000. 65m², bi gela, bainugela, eta trastelekua. Armairu enpotratu eta altzariekin, sukalde guztiz hornitua eta dena hego ekialderantz begira. Hari musikala eta igogailua ditu.

☎ 656 720 238

Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren edo inguruko herriren batean.

☎ 683 415 222 (Maria)

Lanean ari den bikote bat gara, eta etxea hartuko genuke alokairuan.

☎ 622 162 798

BESTELAKOAK.....

Irailaren 11n zilarrezko lepoko katea galdu nuen Olaizaga kiroledegiko inguruan. Bale buztan zintzilikarioa dauka eta atzean lizar jartzen du.

☎ 615 624 599

Familia batek Elgoibarrik gertu dagoen lur sail txiki bat erosi edo alokatu nahiko luke.

☎ 669 339 529

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Española Administradores Locales Autónomos

Gure komunitatean onartu berri dituzten arauen arabera, 14 urtetik beharago ezin dute igogailua erabili. Jakin nahi nuke komunitateak zein neurri hartu ditzakeen arau hauek errespetatu daitezten eta adin txikikoek ez dezaten igogailua erabili.

Barne Erregimeneko arauak zailak sortzen dute egunerokotasunean, askotan ez direlako Estatutuetatik bereizten eta akatsak sortzen direlako.

Jabetza Horizontalean eraginkortasun desberdina duten arauak daude. Arau batzuk besteak baino garrantzitsuagoak izan daitezke, eta beste batzuk Banaketa Horizontalaren Idazketa notarioari ematen dion pertsonaren edo une horretan komunitatea osatzen duten etxekideen borondatearen arabera neurtzen dira.

Barne Erregimeneko arauak bizikidetzaren eta zerbitzu edo elementu komun erabilera egokia arautzeko balio dute, betiere legedia, eta dauden kasuan, estatutuak errespetatuz. Beraz, zure kontsulta Barne Erregimeneko arauetan oinarrituz konpondu beharko litzateke. Arazoa, baina, ez dago eraginkortasun formalean, baizik eta praktikan gainjartzeko daukan ahalmenean. Askotan gertatzen den bezala, borondatez betetzen ez bada, auzitegiak inposatu beharko du, ezin delako indar komunitarioa gainjarri, arauen kontra igogailua erabiltzen dutenen gainetik.

ONDORIOA: Sententzia bat egon daitekeen kasuetan ere zaila izan daiteke derrigortzea, komunitateko kideek onartu nahi ez badute, ez bada behintzat erabilpen okerra egiten delako, kalte materialak daudelako, arriskuak hartzen direlako edo bestelako arrazoiren batengatik. Kalte orokortzen bada hausnartu beharko da araudiak betetzen dituen bizilagunen beharrak, edo, aldiz, aztertu beharko da kalteak eragin dituzten bizilagunak komunitate horretan elkarbizitzeko gai diren.



ROSA Ma PINTADO

660 969 679
rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



ZORIONAK

Argazkiak eguazien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**Neko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mar-tin!** 7xan urte bat beteko dozu! Patxo handi bat etxekuen, eta bereziki, Sararen partez.



Zorionak, **Malen!** Bihar 10 urte! Muxu handi bat familia-koen, eta bereziki, Unaxen partez.



Zorionak, **Ion,** asteartean 6 urte bete zenituelako. Aita, ama, eta bereziki, Ekhiren partez.



Zorionak, **June,** gaur 11 urte bete dituzulako. Jarrai ezazu irribarre horrekin. Gurasoen partez, muxuak.



Jarek zenbat urte? Bat!



Zorionak, **Malen!** Ondo-ondo pasa asteartean, eta bizkotxo ederra prestatu guzti-ontzat. Familia oso-aren partez.



Zorionak, **Asier,** urriaren 10ean 6 urte beteko dituzulako. Familia guztiaren partez.



Zorionak, **Aiur!** Bihar 4 urte! Oso ondo ospatuko dugu. Muxu handi bat denon partez. Asko maite zaitugu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

IKASGO ACADEMY

Besarte 13, behea - Elgoibar
akademiae@goibar@gmail.com

AURREMATRIKULA EPEA

ZABALIK

2019-2020

● INGELES ERREFORTZUA

● CAMBRIDGE AZTERKETAK

● TALDE TXIKIAK

667 261 248

(Leire)



GREMIOEN GIDA

Arozlegiak

Erreformak

Igeltseritza

Pintura

Leihoak

Iturgintza

Elektrizitatea

Izurien kontrako tratamenduak

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilero

21 Cren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakuste-ihio ikusia.

4.885
ale astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



RPS 18312



ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

► **Urriko eskaintza:**


2. betaurreko monofokala

-50%



► **Urriko zozketa:**

5 bono
30€koak
optikan
erabiltzeko



4 BARIKUA

18:30 Pepa Calleja eta Mari Jose San Millanen margolanen erakusketa. Hilaren 19ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

5 ZAPATUA

9:30 'Euskara ala Ezkara' mintegia: *Euskara mundu digitalean?*. Elgoibarko Izarrak, Puntu.eus fundazioak eta Udalak antolatuta, IMHn.

10:00 Stock feria. Txankakua merkatarik elkarrekin antolatuta, Maalako parkean. 14:00etan 600 euro zozketatuko dituzte, erosketa bonoetan.

16:30 'Mauriziak ez dau inor hil' ikuskizuna eskainiko dute Ines Osinalde eta Lorea Argaratek 'Euskara ala Ezkara' zikloaren baitan. IMHko aretoan, doan.

6 DOMEKA

11:30 Antzinako ogibideen erakustaldia eta umeentzako tailerrak. Makina Erremintaren Museoak antolatuta, Kalegoen plazan.

11:30 Errosario kaleko amaren ezpata dantza. Meza nagusiaren ostean,

Kalegoen plazan hasiko da. Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari taldeak antolatuta.

7 ASTELEHENA

19:00 Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea, Kalegoen plazan.

8 MARTITZENA

18:00 Ludotekako ate irekiak. Guraso, tutore, hezitzaile eta irakasleentzat. Umeentzako jolasak egongo dira eta segidan, luntxa.

9 EGUAZTENA

16:30 Adinekoen ererikoak saiheskerako tailerra. 65 urtetik gorakoentzat. Jubilatuen biltokian.

19:00 Isiltasun Eskolaren meditazio topaketa. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 EHBilduren herri batzarra. Itxaso Egaña zinegotziak Jon Iñarritu diputatua elkarriketatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Gaztelekuko ate irekiak. Guraso, tutore, hezitzaile eta irakasleentzat. Segidan, luntxa.

AITA AGIRRE KULTUR JAIA

URRIAK 4, BARIKUA

19:00 Udal Musika Bandaren kalejira. Kalegoen plazatik.

19:30 Erraldoi, buruhandi eta zezen-zikleten kalejira, Elgoibarko dultzaineroekin. Kalebarren plazatik.

20:30 Ainhoa Larrañagaren kontzertua.

21:30 Mauxitxa txarangaren kalejira, Aita Agirre plazatik.

22:30 *Buruak taup-taup* ikuskizuna, Taupada antzerki taldearen eskutik.

23:00 Bideo mapping: Argi, bideo eta musika ikuskizuna.

23:15 Hesian taldearen kontzertua.

Jarraian, bideo mapping: Argi, bideo eta musika ikuskizuna.

URRIAK 5, ZAPATUA

10:30-14:30 / 16:00-

19:00 Ume eta nerabeentzako parkea.

19:00 BetiSua txarangaren kalejira.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Agur Etxebeste' (Euskaraz)

4 barikua: 21:30 (Azpitulurik gabe)

5 zapatua:

19:00 (Azpitulurik gabe) /

22:15 (Azpitulurik gabe)


6 domeka: 19:00 (Azpitulurik gabe)

7 astelehena: 21:30 (Azpitulurik gabe)



'El rey león'

6 domeka: 16:30



'La mujer de la montaña'

10, eguena: 21:30



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
4 BARIKUA	5 ZAPATUA	6 DOMEKA	7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA	9 EGUAZTENA	10 EGUENA	11 BARIKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gauzez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Irailean hildakoak

- **Gabriel Plaza Barbero**
84 urte, irailak 5
- **Alberto Solas Suarez**
77 urte, irailak 15
- **Koldo Lizarralde Elberdin**
69 urte, irailak 23
- **Juan Jose Etxaniz Iriondo**
84 urte, irailak 9
- **Maria Isabel Zabala Arriola**
86 urte, irailak 16
- **David Carril Velo**
85 urte, irailak 29
- **Maria Angeles Gorostiola Goikoetxea**
70 urte, irailak 14



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar


info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



☆ fotoiosu ☆



losu Juaristi

lñigo Otaño



Iratzargailuak jo baino lehenago, bere buruak esnatzen du egunero. Ez daki noiztik gertatzen zaion hori, baina horrela da aspalditik. Errutinak bere burua programatuta dauka eta pentsamenduak dantzan hasten zaizkio iratzargailua esnatu baino lehen, bizitza propioa izango balute bezala.

Jaiki aurretik sakelekoari lehen begirada: aspaldi maiz entrenitu eta dibertitzen zuten sare sozialen nobedadeak noizbait errepikakor eta aspergarriak bihurtu zaizkio, baina ezin utzi hala ere egunero begirada bat botatzeari, zerbait aldatuko duen gertakizun harrigarriren bat noiz ikusiko.

Automata bat bailitza, mugimendu errepikakorrez gosalduta eta bere burua prestatzen du egunari aurre egiteko. Berehala etor-

tzen da banan-banan eguna osatuko duten gertakizunen uholdea, egunero irensten duten betebeharren uholdea. Lokatzez beteriko zapata astunak jantzita balitu bezala sentitzen da, erantzukizun eta konpromisoz katramilatuta. Ibilerak astun eta neketsuaz egiten die aurre agertzen zaizkion erronka guztiei, burua hainbat eta hainbat eginbeharrez entrenituta, pentsatzen gelditzeko ere denborarik gabe.

Ilunabarrean, egun osoko uholdea pasatuta, nekatuta eta logale oheratzen da ezinbestean. Pentsatzen jarri eta ez daki noiz erabaki zuen bere bizitza horrela izango zela. Agian gehiegi espero zuen, edo agian gutxiegi. Ez daki, baina hala ere, lo hartu aurretik, lokatzez beteriko zapata astun horiek kendu eta zapata berri batzuk estreinatzen dituela amesten du, noizbait, agian, iritsiko den bizitza berri batean ibiltzeko.

“Lokatzez beteriko zapata astunak jantzita balitu bezala sentitzen da, erantzukizun eta konpromisoz katramilatuta”

ROSA M^a PINTADO
Etaldeen administratzailea
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
rosapf@telefonica.net



Aholkularitza
kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA

administradores

Consejo Vasco de Colegios
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioen
Lurralde Kontseilua

DIRRIGORREZKO
KOLEGIATZEA

BAI!
MILA ESKER

► Gremioen gida

AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Ulazia

AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

IMAR AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Asostegia Carpinteria ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario kalea, 15 behea - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tiende@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA Ibámar ITURGINTZA

San Roke, 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cld: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

SANTANA Igor Santana ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA, ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

Hércules



658 710 898

- Aroztegiak
- Erreformak
- Igeltsaritza
- Pintura

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea
- Izurrien kontrako tratamenduak